



Esp.kodea: 2022RBAR0029

Gaia: EUSKO JAURLARITZAKO
IRUZURRAREN AURKAKO PLANERA
ATXIKITZEKO AKORDIOA
Hasiera eguna: 2022/06/22

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2022ko uztailaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“EUSKO JAURLARITZAKO IRUZURRAREN AURKAKO PLANERA ATXIKITZEKO AKORDIO PROPOSAMENA (2022RBAR0029).”

Udal Plenoak, aho batez, Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Europako *Next Generation* funtsen harira eskainiko diren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsekin finantzaturako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (gazteleraz PRTR) jasotako neurriak egikaritzeko esparruan beharrezkoa da erakunde parte-hartzaileen kudeaketa-prozedurak eta kontrol-ereduak egokitzea.

Kudeaketa-sistema horien eraginkortasuna bermatzeko ezartzen diren neurrien artean, HFP/1030/2021 Aginduak, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren gestio-sistema arautzen duenak, bere 6. Artikuluan ondorengo adierazten du: PRTRren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzailerok “Iruzurraren Aurkako Neurrien Plana” izan beharko du, dagozkien funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

Zentzu horretan, eta Arrasateko Udalak bere Plan propioa onartu bitartean, beharrezkoa da tokiko entitatea beste erakunde edo administrazio baten planera atxikitzea, horrela HFP/1030/2021 Aginduak jasotakoa bete ahal izateko.

Era berean, eta aintzat hartuta HFP/1030/2021 Aginduak Iruzurraren Aurkako Plana nahitaezko jardueratzat jotzen duela, beharrezkoa da Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko funtsezko prozesuetan hasierako ebaluazio-jarduera egitea, iruzurraren arriskua, inpaktua eta probabilitatea ebaluatzeko. Eskumen hori *ad hoc* eratuko den Iruzurraren Aurkako Batzorde baten

Kodea	H22/08426	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/uzt./21	CUDO	000.0055.AAAAVZY17.m1WY
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAVZY17.m1WY		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022RBAR0029

Gaia: EUSKO JAURLARITZAKO
IRUZURRAREN AURKAKO PLANERA
ATXIKITZEKO AKORDIOA
Hasiera eguna: 2022/06/22

esku geldituko da. Hori horrela, komenigarritzat jotzen da batzordea ondorengo kideez osatuta egotea:

1. Udal kontu-hartzailea: Aurkene Ansola
2. Udal idazkaria: Ana Belen Hidalgo
3. Udal diruzaina: Martin Oteiza
4. Kontratazioko teknikaria: Elena Izarra
5. Obra eta zerbitzutako burua: Moises Altuna

Planak berak izango dituen eskakizunak bete ahal izateko, gutxieneko edukin bat izan behar du, ondorioz, beharrezkoa da zenbait eranskin onartzea: iruzurraren aurkako borrokari dagokion Arrasateko Udalaren politikari buruzko adierazpen instituzionala, kontratazio, hitzarmen eta dirulaguntza prozesuetan onartuko den interes-gatazka ezaren adierazpen eredu (gazteleraz DACI) eta erakunde kideen jokabide-etikoa.

Era berean, iruzurraren aurkako salaketa postontzi bat izan beharko du udalak, edo, gutxienez, beste erakunde baten salaketa postontzi batera esteka argitaratu beharko du bere web orriko gardentasun atalean, modu horretan herritarrek aukera izan dezaten iruzur susmoak izanez gero, horren prebentzioan jarduteko, betiere konfidentzialtasun osoz. Hori horrela, Arrasateko Udalak bere barne kanal propioa egingo du; horretarako, udal web orrian galdetegi eta eskabideen bitartezko postontzi bat eratuko da. Horrez gain, kanpo kanal hauen bitartez bideratu ahal izango dira salaketak:

1. Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA gazteleraz), SEM-MRRtik etorritako Europako funtsen aurkako IGAE Kontrol Agintaritzari atxikia: <https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/paginas/denan.aspx>
2. OLAF, Iruzurraren aurkako Agentzia europarra: https://fns.olaf.europa.eu/main_es.htm

Guztiz gain, beharrezkoa da iruzurraren aurkako planaren baitan erakundeak kode etiko bat onartzea, edo, gutxienez, dagoeneko argitaratuta dagoen udalaz gaindiko erakunde baten koderatxikitzea. Horrenbestez, eta pertsonal sailaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzako kode etikora atxikitzea ontzat ematen da (67/2016 EBAZPENA, azaroaren 22koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bategina).

Azkenik, kontuan izanik Udal honek PRTRren entitate betearazlearen kondizioa duela, legezko xedapenak betetze aldera, Arrasateko Udalbatzari dagokio atxikipen akordio hau eta dagozkion eranskinak onartzea.

Kodea	H22/08426	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/uzt./21	CUDO	000.0055.AAAAVZY1.7.m1WY
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAVZY17.m1WY		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022RBAR0029

Gaia: EUSKO JAURLARITZAKO
IRUZURRAREN AURKAKO PLANERA
ATXIKITZEKO AKORDIOA
Hasiera eguna: 2022/06/22

Barne Antolaketako batzorde honek Udal Plenoari ondorengo akordioa hartzea proposatzen dio, dagozkion eranskinekin:

1. Eusko Jaurlaritzako Iruzuraren Aurkako Planera atxikitzea, Udalak bere plan propioa egiten duen bitartean.
2. Arrasateko Udaleko Iruzuraren Aurkako Batzordea eratzea, arriskuen ebaluazioari ekin diezaion eta bere kideak izendatzea:
 1. Udal kontu-hartzailea: Aurkene Ansola
 2. Udal idazkaria: Ana Belen Hidalgo
 3. Udal diruzaina: Martin Oteiza
 4. Kontratazio teknikaria: Elena Izarra
 5. Obra eta zerbitzuetako burua: Moises Altuna
3. Iruzuraren aurkako borrokari dagokion Arrasateko Udalaren politikari buruzko adierazpen instituzionala onartzea.
4. Kontratazio, hitzarmen eta diru-laguntza prozesuetan onartuko den interes-gatazka ezaren adierazpen erdua ontzat ematea.
5. Eusko Jaurlaritzak 2016ko azaroaren 22an onartutako 67 zenbakidun ebazpenaren bitartez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginera atxikitzea, Arrasateko Udalak jokabide-etikoari buruzko bere kodea egin bitartean.
6. Iruzuraren aurkako salaketa-postontzi propioa argitaratzea udal web orrian, dagozkion barne eta kanpo kanalekin.
7. Akordio hau eta dagozkion eranskinak Arrasateko Udalaren egoitza elektronikoan (www.arrasate.eus) argitaratzea, bere ezagutza orokorrerako.”

Kodea	H22/08426	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/uzt./21	CUDO	000.0055.AAAAVZY1.7.m1WY
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAVZY17.m1WY		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022RBAR0029

Gaia: EUSKO JAURLARITZAKO
IRUZURRAREN AURKAKO PLANERA
ATXIKITZEKO AKORDIOA
Hasiera eguna: 2022/06/22

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2022ko uztailaren 21ean.

O.E.

Alkatea

Kodea	H22/08426	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/uzt./21	CUDO	000.0055.AAAAVZY1.7.m1WY
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAVZY17.m1WY		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

